

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak 14 erakundek sustatutako 200 kultur jardueratik gora finantzatu ditu

*Lehia publikoan oinarritutako laguntzen sistema berriari esker, orain arte dirurik jasotzen ez zuten sei erakunderi diruz lagundu ahal izan zaie*

Jueves, 01 de marzo de 2012

Nafarroako Gobernuak aurten egingo diren tokiko 14 elkarte eta erakunde artistikok sustatutako 200 kultur jardueratik gora finantzatu ditu. Finantzatutako jardueren barnean berrikuntza garrantzitsuak izango dira: zirku-ziklo bat, dantza garaikideko jaialdiak, jazz-kontzertuak, haur-opera, dantza eta argazkigintzako ekoizpenak eta pop/rock jaialdi bat. Kultur erakundeen ekitaldiak Nafarroako geografia guztian zabalduko dira, eta haietako batzuk Nafarroako Gobernuaren Kulturako programa propioen barnean izango dira..

Nafarroako Gobernuaren Kulturako Departamentuak Nafarroako erakunde eta talde artistikoen jarduerari laguntzeko lehia librean deitutako emaitzaren berri eman du gaur. 1.441.299 euroko aurrekontu-partidaren xedea 2012. urte honetarako eskaintza artistiko bati laguntzea da kalitatean. aniztasunean eta publikoarentzako interesean oinarritutakoa.

Lehiaketako ebazpenaren ostean, Kulturako Departamentuak erabaki du Nafarroako 14 erakunde artistiko eta kulturalen programazio artistikoa diruz laguntzea (2011n baino bi gehiago); haietako seik orain arte ez zuten inolako diru-laguntzarik jasotzen Nafarroako Gobernuaren Kultura Departamentutik. Gainera, gaineratu behar da bost erakunderen proiektuei ezin izan zaiela zuzeneko diru-laguntza eman partida amaitu zela eta, laguntza jasotzeko gutxieneko puntuazioa lortu arren. Kasu horietan, Nafarroako Gobernuak erakunde horien proiektuen zati bat Kulturako Departamentuaren beraren programazioetan sartuko du

Laguntza horien ebazpenari esker, onuradun erakundeek kultur jardueren zenbait programa abian jarri ahal izango dute: antzerki-zikloak, zirkua, lirika-generoko kontzertuak, ahozko musika eta musika herrikoia zikloak, bai eta dantza-jaialdi batzuk ere. Programazio horiek, Nafarroako Gobernuak garatzen dituen programa propioei lotuta, era askotako eskaintza artistikoa eta kalitatezkoa osatzen dute 2012. urte honetarako.

Lehia publikoko deialdi honetara 47 erakunderi dagozkion 55 proiektu artistiko aurkeztu ziren. Haietatik, 19k erdietsi dute diru-laguntza lortzeko gutxieneko puntuazioa gainditzea (% 34,5), eta kopuru horretatik 14 erakunderi dagozkien beste hainbeste proiektu lortu dute diru-laguntza.

Deialdiaren oinarriek adierazten zuten laguntzaren zenbatekoa erakundeak eskatutakoaren kopuru bera izango dela, baldin eta jardueraren aurrekontuaren % 70a gainditzen ez bada, eta laguntzak ezingo duela ere gainditu deialdi honi emandako aurrekontu guztiaren % 20a.

Horrenbestez, lehiaketaren emaitza honako era honetan geratu da:

- 1)  
Operaren lagunen Gayarre Elkartea : 280.257 euro
- 2) "El Colectivo" Nafarroako Antzerki Eskola: 273.876 euro
- 3) Nafarroako Ganbera Opera: 249.800 euro
- 4) Iruñeko Ganbera Abesbatza: 207.350 euro
- 5) Nafarroako Ganbera Abesbatza: 125.000 euro
- 6) Musika eta Arte Eszenikoen Nafarroako Foroa (Eugenia Echarren Kantu Eskola): 75.567 euro
- 7) Nafarroako Abesbatzen Federazioa: 72.811 euro
- 8) Nafarroako Amateur Antzerki Federazioa: 30.502 euro
- 9) Atena Psicoballet fundazioa: 30.000 euro
- 10) Oreka Nafarroako zirku-eskola: 28.810 euro
- 11) El Tajador gazte-elkartea: 25.427 euro
- 12) Hierba Roja: 20.099 euro
- 13) El Vértigo de la Trapecista kultur elkartea: 15.298 euro
- 14) Haizea Dantzaren Aldeko Nafarroako Elkartea: 6.500 euro

Zuzeneko laguntza jaso ez, baina beren proiektuen zati bat Nafarroako Gobernuaren programa propioen barnean sartzen diren erakundeak:

Diego Gómez musika-elkartea  
La Ortiga TDS elkartea  
La Pamplonesa  
Barañáingo abesbatza